

AuzoEkin Tolosa (2025)

Zona 4: Iparragirre-Bidebieta-Sputnik-Igaralde- Zabalarreta-Kondeko Aldapa



4. Tailerra: Proposamenak antolatu eta iragazi

Lekua:

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola

Data:

2025eko Urriak 17, astelehena. 18:00-20:00

Parte-hartzaileak:

- **Talde Eragilearen Ordezkaritza:** 6 pertsona
 - 3 emakume
 - 3 gizon
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartziandia (Aise kooperatiba)

Sarrera:

Saioaren helburua parte-hartze prozesuan zehar jasotako proposamenak berrikustea, ordenatzea eta iragaztea izan zen, eremuko estrategiarekin eta AuzoEkin proiektuaren balioekin bat datozela bermatuz.

Lan honetarako, hainbat bidetatik jasotako proposamenak hartu dira kontuan:

- 3. saio irekian jasotako proposamenak.
- Erabaki.tolosa onlineko plataformaren bidez jasotako proposamenak.
- Talde Eragileak aurreko bileretan landutako 30 proposamen.
- Zabalarreta parkea hobetu eta eraldatzeko Hirigintza Sailarekin izandako aldez aurreko prozesu parte-hartzailean jasotako proposamenak.

Lantalde txikian, parte-hartzaileek - talde eragileak hautatutako ordezkari bat - ekarpen guztiak aztertu zituzten, bikoiztasunak identifikatu, bideraezinak edo eskumenetik kanpokoak baztertu, eta anbiguotasunak birformulatu eta zehaztu zituzten, errazago ulertzeko eta prozesuak aurrera jarraitu ahala proposamen hauek bide luzeagoa izan dezaten.

Ezarritako lege-, teknika-, ekonomia- eta gobernantza-baldintzak bete zituzten proposamenek bakarrik egin zuten aurrera hurrengo fasera, eta labur-labur jasotzen dira aurrerago.

Helburua:

Prozesuan zehar jasotako proposamenen berrikusketa kolektiboa, proposamenen azterketa eta iragazketa, AuzoEkin prozesuaren esparruan oinarrituta, ondoren 6. tailerrean lehenesteko.

Proposamenak

AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIODIBERTSITATEA

Zk.	Proposamena
AE1.1	Zabalarreta: Gune berdea eta biodibertsitatea zainduko duena. Berdeguneen, ertzen eta ezponden kalitatea eta mantentze-lanak areagotzea. Zuhaitzak eta belarra zaintzea, inausketa, saneatzea, moztu behar dena moztu, hazia bota.
AE1.2	Auzoko biodibertsitatearen kontserbazioa. Zabalarretan bizi diren txori, hontza eta kattagorrien zaintza eta jarraipena. Baimena eskatu eta Aranzadik jarraipena egin diezaien Zabalarretan dauden habi-kutxei.
AE1.3	Zabalarreta Parkearen edukiak. Naturaren eta historiaren erakusketa informazio paneletan. Zuhaitzei eta faunari buruzko informazioa emateko elementuak jartzea. Plastikoko birziklatuzko elementuak. Testu gutxi erabiltzea, argazkiak eta QR. Osagarria: Landare-motak seinalatzea eta ibilbide botanikoa osatzea.
AE1.4	Zabalarreta. Eremu itzaltsuak birpentsatzea eta egokitzea (landare estaltzaileak edo materialak). Non: Ertza, muga los bordes. Pasabideetan farolak.
AE1.5	Zabalarreta. Gune eguzkitsuak zuhaixkekin koloreztatu: arrosak, kolorezko lore biziak. Landare loreduak.
AE1.6	Zabalarreta. Biodibertsitaterako ur-puntu bat sortzea animalitxoentzat.
AE1.7	Zabalarreta. Parkea ingurumen-hezkuntzarako erabiltzea ikastetxeekin lantzeko.
AE1.8	Zabalarreta: Helduen eta ikasleen arteko topaketarako Elikadurari buruz hezteko baratzea.
AE1.8	Zabalarreta: elikadurari eta helduen eta ikasleen arteko topaketari buruz hezteko baratzea. Eskolak/hirigintza (biodibertsitatera mugitu)
AE1.9	Zabalarreta: Lorategi bio-osasungarria egitea (zentzumenak erabiltzeko informazioa bermatzea)

AE2. HIRI EREDUA

Zk.	Proposamenak
AE2.1	Hiri-bizitasuna handitzea, erabilerak nahastuz eta beheko solairuak berraktibatuz. Otsabi Denak tabernaren ondoan, lokal guztiak udaletxeanak dira, inguru horretan hasi beheko lokalen berraktibazioa. Zerbitzuak eta bizitza egon daitezen lagunduko du Era guztietara sustatu dadila, pribatuak izan arren.
AE2.2	Zabalarretan mugimendu-elementuak dituen umeentzako parkea jartzea (ez kolunpio arruntak). Altuera desberdinak eta menditxoak, zuhaitz enborrak, kalistenia, tirolina,...
AE2.3	Zabalarretako argiztapena hobetzea, lgeralde inguruan argiak gehituz eta zenbait gunetan argi-potentzia handituz. Aldian-aldean inausketa kontrolatuak egitea, argiztapenari eusteko.
AE2.4	Zabalarretan dauden komun publikoak konpontzea. irekitzea, kudeatzea, zaintzea eta mantentzea. Gizonentzako komun irekiak.
AE2.5	Zabalarreta parkean elementuak kokatzea - Paperontziak kokatzea - Ingurunearekin eta ingurumenarekin orekan dauden mahaia eta eserlekuak sakabanatuta
AE2.6	Zabalarretako sarbide eta irisgarritasuna hobetzea: - Parketik inguruko etxebizitzetarako sarbide egokia sustatzea - Eremu irristakorren arazoa konpontzea, arriskua murrizteko.
AE2.7	Zabalarretaren zaintza eta mantentze lanak planifikatzea: - Mantentze-lanen irizpideak eta proposamenak jasotzea - Zaintzeko konpromisoa lortzea
AE2.8	Zabalarretan pergola edo kioskoa jartzea (toldo txuria)
AE2.9	Zabalarreta: urmaelaren inguruan jarduerak egiteko gune lau eta egoki bat prestatzea
AE2.10	Zabalarreta: lasaitasunerako lekua – eserlekuak (25 pertsonentzako kanpoko gela), landareekin edo zurarekin konpartimentatua
AE2.11	Zabalarreta: artelanak garatu eta gai desberdinekin lotu. Proposamen bilketa antolatu.
AE2.12	Estolderia berritzea eta espaloia zabaltzea Iparragirre kaleko 3. zenbakiaren parean.
EA2.13	Bidebieta. Zumardi handiko igoeran goroldioa garbitu (Aldapa arriskutsua, goroldioz, zuhaitzez, festetako hondakinez betea...)

AE2.14	Herrikideko igoeraren garbiketa (espaloiairen ondoan dauden zuhaitz gaixoak eta sasiak KENDU ESKOLAPIOETARA igotzeko)
AE2.15	Sputnik. Kendu dagoen iturri apaingarria eta bere ordezkariak jartzea. Harrizkoak izan daitezke, eta gaur egungo iturriaren leku, tamaina eta forma bera hartuko lukete. Gainera, erabiltzaileentzako edateko uraren iturri bat izan liteke, baita inguruan zuhaitzak landatzea ere
AE2.16	Sputnik-en komun publikoak jartzea.
AE2.10	Sputnik. Haur-parkea jartzea adin guztietarako (oraingoa oso adin txikikoentzat bakarrik da).
AE2.11	Izaskun auzoko plaza erabat birgaitzeko proiektua, egonkortasun-arazoak konpontzeko eta oinarria egonkortzeko, drainatzea hobetzeko...
AE2.12	Bidebietako transformadorea konpontzeko Iberdrolari presionatzea eta horren jarraipena egitea. Lurperatu. Gutxienez, paretak pintatu eta atea txukundu. Noiz egingo duten zehaztea. Hesitu, tapatu, beraiek bakarrik sartzeko, potentzia haunditzen bada, aldatu daiteke.
AE2.13	Sputnik. Argiztapena berrikustea eta hobeto banatzea.
AE2.14	Sputnik. Espaloiairen erdian dagoen zuhaitza kentzea, tanatorian kendu den bezala
AE2.15	Igaralde Plazan haur eta gurasoentzako espazio estalia instalatzea
AE2.16	Udalak jende gahiago jartzea kale-garbiketa lanak hobetu, sakonagoa izateko eta toki guztietara iristeko. Katuen eta txakur-kaken garbiketa.
AE2.17	Arratoiak hiltzeko eta izurriteak kontrolatzeko udal-plana, abisu- eta segimendu-sistema barne: - Estali arratoi-zuloak Iparragirre kaleko 1. eta 2. zenbakietan, eta arratoi-garbiketa ziklikoak egin. - ko aldapa 18 – Txintxeak - Izaskun. Labezomorro-izurria zenbait bloketan
EA2.21	Inmakulada Ikastolaren ondoan dagoen haur parkean iturria jartzea.

AE3. KLIMA-ALDAKETA

Zk.	Proposamena
AE3.1	Zabalarretako parkea klima-babesleku eta ingurumen-heziketarako gune gisa birgaitzea, eta, horretarako, itzalguneak, askotariko zuhaitzak, ur-iturriak, zoladura iragazkorak eta atsedenguneak integratzea.
AE3.2	Korridore Berdeen eta Espazio Iragazkorren Sarea sortzea, Zabalarreta, Izaskun eta Bidebieta lotuz biodibertsitatearen, erregulazio termikoaren eta oinezkoen mugikortasunaren euskarri gisa.
AE3.3	Argiteria publikoan eta hiri-zerbitzuetan energia-eraginkortasuneko irizpideak aplikatzea, luminarien ordezkudeaketa adimenduneko LED teknologia erabiliz.
AE3.4	Zabalarreta. Aterpe klimatikoa eta Karbono-xurgapenaren zenbatespena eta azalpena egiteko informazioa kokatzea.

AE4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Zk.	Proposamena
AE4.1	Mantentze Lan Prebentiborako eta Garbiketa Parte-hartzaileentzako Plana garatzea, udal-ekintza eta herritarren ardura partekatua uztartuko dituen, altzarien, zoladuren eta argiztapenaren kontserbazioa bermatuz. Zehazki auzokoek mantentzen diren nola dagoen gainbegiratu eta udalari deriba bat egitea udalari komunikatzeko. Talde eragileak aurrera jarraitu eta udalarekin komunikazio mantendu
AE4.2	Ingurumenarekiko sentsibilizazio eta erantzukizun partekatuko programak garatzea, jasagarritasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko kanpainak, herritarren prestakuntza eta lankidetzak-proiektuak integratuz.
AE4.3	Kontenedoreen mantenua eta zaintza egitea. Edukiontzia ez dira pedalarekin irekitzen Igaralden. Zintarriarekin (pedalarekin) jotzen dutelako.
AE4.4	Garbigunean material organikoa ekarri konpostatzeko kanpaina egitea, Zabalarretan. puntu berdea kokatuz: ontziak, organikoa, papera.

AE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Zk.	Proposamena
EA5.1	Bizikleta zaharrak kentzea Izaskungo aparkalekutik, iturriaren ondoan daudenak
EA5.2	Bizikletentzako aparkalekuak jartzea: - Bidebieta/Igaralde (Autobidearen zubiaren azpian, eskolapioetako igoeran) - Zabalarreta Igaralde norabidean. - Izaskun iturriaren ondoan (handitu)
AE5.3	Igaralde kalea birgaitzea/berrurbanizatzea. - Asfaltatzea. - Seinaleztapen bertikala eta horizontala. - Aparkalekuak pintatu eta mugatzea. - Abiadura murrizteko neurri fisikoak. - Zebrabide goratua (Igaralde eta IP3 arteko bidegurutzea) - Irisgarritasuna bermatzeko arrapalak. - Piboteak eta seinaleak jartzea, plazan behar ez bezala aparkatu ez dadin. - Larrialdietarako zerbitzuetarako lekua prestatzea eta seinaleztatzea.
AE5.4	Igaralde kalea. EPA ondoko autobus geltokia aldatu eta markesina jarri.
	Urrutitxoko aldapa bergaitzea. - Pintatzea eta seinaleztatzea. - Kalearen goiko aldean aparkatzeko lekuak kentzea (egina dago) - Kondeko aldapako bidegurutzean ispilua jartzea ikusmena hobetzeko.
EA5.5	Urrutitxoko aldapa norabide bakarrekoea egin.
AE5.6	Urrutitxoko aldapa. Bidegurutzean aparkalekua kentzea. Talka arriskua, 3 noranzko elkartu eta PGC norabideko bigarren erreia kendu zuten Iparragirre Auzora. Hau eginda dago
AE5.7	Kondeko aldapa birgaitzea/berrurbanizatzea. - Abiadura moteltzea. - Zebrabide gehiago jartzea. - Autoak espaloietara ez igotzeko neurriak. - Oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea. Bereziki ezkerreko aldean - Atariak 16, 18. Autoen zirkuitua. Anbulantziak ezin du pasa. - 15-17 hiribilduetan oinezkoen pasabide goratua - Espaloiak nibelatu. - *Karga y descarga, kondeko aldapan. Kabitzen dira.
AE5.8	Tanatorioko aldapa/sputniks/iparragirre. Bolaridoak jartzea edo espaloiak murriztea, autoek gainean aparkatu ez dezaten, bereziki eskola-orduetan. eginda dago bolaridoak, falta da reducir la velocidad,
AE5.9	Aparkatzeko gune eskusiboak egoiliarrentzat. - Galibo-kontrola bidebietako parkinean - Igaralde TAO egoiliarrentzat. - Goiko aparkalekuan gauez bizilagunak. - Udalak gehiago zaindu eta kontrolatu behar ditu aparkalekuak - Igaralde KO aparkaleku guztiak.
AE5.10	OTA jarri auzo guztietan
AE5.11	Autokarabanen aparkalekua eta auzoko egonaldi luzea arautzea, zehazki, EPAtik Amarozero doan errepidean. Lehen ibilgailua duten pertsonak (egunerokoan lanerako behar dutenek) lehentasuna izan beharko lukete aparkatzeko.
AE5.12	Berazubira Sacramentinosetik sartzeko bidea irisgarria egitea, igogailua, eskailera edo arrapala mekanikoa jarritz.
AE5.13	Berazubitik guardia zibilera igotzen diren eskailera bukaeran zebra bidea. No hay visibilidad
AE5.14	Anbulantzia pasa ahal izateko mugarrak gehitu. Spunik inguruan uste dugu
AE5.15	Bidebidetako iturria lekuz aldatu edo berria jarri. Umeak karretera gurutzatu behar izan ez dezaten.
AE5.16	Zabalarreta: Barandila kokatu eskaileretan, farmaziatik hacia Denak-eruntz
AE5.17	Iparragirre auzoan, Amarozero igotzen den errepidean: Asfaltoan zuloak konpontzea, bereziki autopistako zubiaren azpian eta zabor edukiontzien ondoan. Eta zebrabide goratuak, abiadura moteltzeko.

AE6. GIZARTE-KOHESIOA

Num.	Proposamenak
AE6.1	Izaskun auzoko jaiak berreskuratzeko lan-taldea edo komisioa sortzea. 2020. urtean galdu ziren jaiak berreskuratu nahi nituzke. Lantalde bat sortuko balitz gustura hartuko nuke parte bertan. .
AE6.2	Jarduerak antolatzeako lokal soziala, kulturala eta auzokoa, eta topagune estali gisa. EPA / Otsabio / Gorrotxategi (igarlde).
AE6.3	Auzo elkarte antolatu bat sortzea, lokal propioa izango duena, udalarekiko komunikazioa bideratzeko. Agian lokal bezala aprobetxatu daitezke publikoak diran hoiak
AE6.4	Denbora-banku bat ezartzea.
AE6.5	Belaunaldien arteko jarduerak antolatzea
AE6.6	Adinekoiei arreta emateko proiektu bat garatzea. Ez da nahikoa. Duela hilabete batzuk badirudi proiektu bat egon zela, baina ezerezean geratu zen.
AE6.7	Sputnik. Gaueko erabilera arautzea eta arauak betetzera behartzea.
AE6.8	Zabalarreta. 8 eta 10 urte bitarteko haurrentzako jarduerak antolatzea naturan.
AE6.9	Zabalarreta. Kontzertu akustikoak egiteko aukera aztertzea: erabilera-araudia.
AE6.10	Txakurrentzako leku egokiak. Adibidez: tanatorio aurreko parkean. Arauak errespetatzeko neurriak jartzea.
AE6.11	Txakurrentzako leku egokiak. Zabalarreta. Txakurrentzako gunea sortzea. - Txakurrentzako iturriak edo ur-puntua jartzea. - Txakurrek erabiltzeko arauen gaineko seinaleak jartzea. Jabeen betebeharrak betetzen direla bermatzea. Txakurrak lotu gabe ez eramateko seinalea errespetatzea. Herritarrak/hirigintza + A6.13 - Seinaleztapena berritzea eta berria jartzea planteatzen da. Parkeko sarrera guztietan jarri Erabaki.
AE6.12	Auzoa euskalduntzeko programa edo plangintza egitea.
AE6.13	Harrera auzoa. Auzo solidarioa sortu eta elkarbizitza hobetzeko plangintza. Elkarguneak bultzatu, sareak sortu, auzolagunak ezagutu...
AE6.19	Zabalarreta parkearen eredu historiko, artistiko eta naturalaren bilketa txosten batean, beste parkeekin batera,
AE6.21	Inmakuladako ondoko patioan espazio estali multifuntzionala sortzea, haur eta familien jarduerak antolatzeako.

AE7 EKOIZPEN- ETA EKONOMIA-EREDUAK

Zk.	Proposamena
AE7.1	Udalaren laguntzak eta administrazio-eraztasunak auzoan negozio txikiei ekiteko. Merkataritza falta da. Jarduera gutxiko elikadura. Farmazia, okindegia, bi taberna, ile-apaindegia. supermerkatu bat tanatorioko lokalean? telefono eraikina?

AE8. ETXEBIZITZA

Zk.	Proposamena
AE8.1	Izaskun auzoko etxebizitzak saneatzea,
AE8.2	Igaralde 4, 6, 8. eta lokalak lagundu eta legeztatu. Legalizatu gabe daude. Ez dute obra-amaierarik. Denek ere ez du obra-amaierarik.

AE9. TRANTSIZIO DIGITALA

Zk.	Proposamena

AE10. GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA

Zk.	Proposamena
AE10.1	Sputnik. Protokoloak ezartzea komunitateetan eta suhiltzaileentzat. Sute-arriskua dagoenean, eraikinen altueran... Suhiltzaileen sarbidea eta zerbitzua / larrialdi-zerbitzuak. Auzotarren jarduna.
AE10.2	Udaleko arloen arteko koordinazioa eremuko gaiei dagokionean ORAIN!.
AE10.3	Udalak sistema bat behar du herritarren arazoei erantzuteko.
AE10.4	Herritarren kexak, arazoak eta proposamenak bideratzeko plataforma digital bat. Eta epe baten barruan erantzutera behartu. Sistemaren etengabeko hobekuntza. Behartu udala publikoki jartzea eskaera eta erantzuna. Ikus dadila komunikazio hau transparenteki